



# herriko plaza

Herria mugitu denean, horixe nahi luketenek, erraz esan dute, "politikoek" xaxatu dutela. Baina herriaren jeikialdi bizenek ez dute inoren xaxa beharrik izan. Berez jeiki da herria. Edo ta, xaxatu dutenak politiko agintariak izan dira, ez besteak.

Herria ez dago lo, zenbaitek nahi lukeen bezain despolitizaturik, zer egin ez dakiela. Herriak badaki zer nahi duen, zer nahi ez duen, zer egin behar duen, arrunki behintzat, inork zirikatu gabe.

## Herri oldeak

Halare, nahiko berria da, herri oldeek hartu duten indarra. Batez ere azken aldion maiz ikusi ditugu jende oldeak berez eta espontan manifestatzen herrietan. Herria oldetan biltzen den guzietan manifestazioen bat muntatzen duela, esan liteke. Festetan ari dela ere, manifestazio bat harmatzen du. Baztandarren Biltzarrean ala Hondarrabian. Olde burrukan ikusi dugu behin eta berriro: Gasteizen, Iruinean, Santurtzin eta Basaurin, Donostian eta Tafallan... Masa ekintza diferentek ezagutu dira: jaialdiak (Anoetan hasita), manifestazioak, huelgak, boikotak periodiko donostiar bati, barrikadak, eta abar. Arrazoi diferentengatik ere altxatu da herria: Gasteizko hilketak, Pertur, "presoak kalera", herriko festetan Goardia Zibilak izandako interbentzioren bat, laboral arazoak, Foruak (Bergara), gaisoetxe baten premia, ur falta, eta abar eta abar. Eta ondorioa, egurra bai, baina ez da egurra bakarrik izan oraingoan. Herriak bere indarra erakutsi du, eta konkista haundia da hori. Hor daude alkate dimisioak, Madrilgo promesak eta promesa itxurak, nolana hiko oportunitateak, Alderdien atentzioak herri hau irabazi nahita. Eta herriak, azkenean, bere buruan sinesten du.

Herri oldeek burua altxatu dute. Labur-laburki adieraz daiteke, nabari den kanbioa: masak bere indarra ikusi du; bere buruan konfiantza hartu du eta zeregin politikoan parte aktibo hartu nahi du (berak parte hartu eta masa bezala parte hartu; harek apoiaturik eta haren izenean talde minoritario batzuk aritu ordez, orain arte bezala). Eta bide hortatik zerbaitegin litekeela eta zerbaite eskura litekeela, sumatu du. Eta egin egin nahi du eta eskuratu egin nahi du.

## Masa Erakunde bat

Orain behar dena masa Erakunde bat da, eta hain zuzen BAT.

Herri oldeek politikan parte hartzeko gogoia dute iadanik. Oldeok ez dago luzarago oilategian preso edukitzerik. Eta ez dira zai-zai egongo ere, ea noiz agintzen dioten, arrautza egiteko.

# MASA ERAKUNDE SOZIALISTA BAT

JOXE AZURMENDI

Honez gero herri oldeak ez dira izango Alderdien baten "instrumento" soilik, Alderdi minoritario horrek xilibitua jo eta herriak dantza egiteko. Alderdi minoritarioek, abangoardiek bezala, beren lekua izango dute aurrerantzean ere, eta horiek ere masarekin loturik bizi beharko dute nolabait. Baina orain masak masa bezala ekiteko organizazioa behar da. Masa organizazio hori da gaurko premiarik larriena. Masak berak izan behar du bere buruaren jabe eta bere buruaren tresna.

Hau da : gogoia bizkortuko duen, in-

formazioa zabalduko duen, ideiak eta konsignak emango dituen, jende oldeak koordinatuko dituen erakunde behar da eta geroz eta gehiago beharko da. Masaren beraren erakunde.

Herri oldeen mugimenduan interes diferente askok inziditzen du: nazio arazoak eta laboral arazoak, nuklear kostaren gorabeherak eta haragiaren prezioak, airearen kutsadurak, umeentzat jolastokiak, eta hamar mila gauzak. Mugimendu koherentea izan dadin, ba, organizazioa behar da. Koordinazioa. Interesok bilduko eta interesoi zerbitzatuko dien Alderdia. Eta, berriro esan, masaren beraren ekintza eramango duena; ez haren interesen alde bakarrik.

## Posibilitateak eta mugak

Era askotan egin liteke masa politika. Herri oldeak ez dira begiragarri bozemaldietan bakarrik. Baina bozemaldiak begiragarri dira masa politikan. Badirudi, ordea, oraindik ez gairela ohartu, bozemaldiak beren mekanismoak dituztela. Pertsonalitate batzuk atera beharra dago jendaurrera, eta abar.

Masa politikarik ez da erraz izango masa informazio gabe. Euskal sozialismoak hobe luke aldizkari haundi eta on bat, dozena erdi bat eskas baino. Eta abar. Ez bait dakit, benetan masa politikaren bideetik ote gabiltzan. Hori dena ez dago beti biharko uzterik, geroko gerotan.

Masa politikak posibilitate haundiak ditu. Ez gaude prestaturik haiek zinez aprobeztatzeko. Baina baditu bere mugak ere. Alegia, ba omen datorren "demokrazia" klase hortan, muga jakin batzuk izan ohi ditu masa politikak. Hori ez da ezer berririk, ez gara ilusioetan eroriko. Halare, oraingoak baino muga okerragoak ez dira izango. Eta, gainera, posibilitateak behintzat oso-osorik aprobeztatzen ez dakienak, berak jartzen ditu lehenengo mugak, inork baino lehenago. Alferrik izango da, guti ezin, eta asko eskatzea. Lerdokeria besterik ez zait iruditzen, hortakoz, orain "demokrazia burgesari" burlaka aritzea, hartan burruka egiteko gaitu eta indartu ordez.

Izan ere, badirudi, zinez posible den eta posibleago izanen den masa politikaren ihesi dabiltzala batzuk, masa politika radikalago eta idealagoren baten atxakiaz. Denak ari dira, bai, masa politikaz eta masa organizazioaz hitzegiten. Guk ere hortantxe insistitzen dugu. Ezin insiti daiteke nahikoa. Baina hitz eta hitz egitearen ondoren, egin eta egitea tokatzen da, lehenbailehen. Eta ez dago atsedunik, masa organizazio hori bizi-bizi eta lanean ikus arte. Beti gauza bera esan behar : esperantza haundirik ez badago ere, premia bai haundia dago eta. ●